

# EUSKERAZAINZA

## EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

Academia Popular de la Lengua Vasca

L'Academie Populaire de la Langue Basque

LXIII Zenbakia

2009n. urtea-1

EUSKERAZAINZA.....

ERRIZ ERRI.....

ERRI-EUSKERA LANTZEN.....

**EUSKERAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.**

**Z. N. A. /C. I. F. G 20/127. 759**

**Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.**

**Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)**

**Colón de Larreategi, 14-2ª 48001 BILBAO**

## GURE IRAKURLEARI:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adiskideentzat jarritako oar bar agertu zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzalle" taldera sartuko ditugu.

Gure kontuaren zenbakia au da:  
BBVA 0182/1296/04/0411511180



**Bizkaiko Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Bizkaia**  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

## LAGUNTZAILLE

Gure zuzenbidea:  
EUSKERAZAINTZA  
Euskeraren Erri-Akademia  
Colòn de Larreategi 14, 2<sup>a</sup> eskuma  
48001 - BILBAO

EUSKERAZAINTZA  
I.S.B.N. : 1132 – 1318  
Legerako Gordetza: BI-1928-87  
Konponketa: Flash Compositiòn, S.L. - Bilbao

# EUSKERAZAINZA

## EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

Academia Popular de la Lengua Vasca

L'Academie Populaire de la Langue Basque

LXIII Zenbakia

2009n. urtea-1

EUSKERAZAINZA.....

ERRIZ ERRI.....

ERRI-EUSKERA LANTZEN.....

EUSKERAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.

Z. N. A. /C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

Colón de Larreategi, 14-2<sup>a</sup> 48001 BILBAO

EUSKERAZAITZA

I. S. B. N. : 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S. L. - Bilbao

AURKIBIDEA

	Orr.
ATARIKOA .....	7
BERTSOLARITZA (Legarreta' tar Asier).....	9
GARDE' tar Marzelino (Erbiti' tar Bakarne).....	35



# Atarikoa

Badakigu, 2.009´n urte onetan berandu gabiltzala Euskerazaintza aldizkari onen LXIII zenbakia argitaratzeko.

Arrazoi aundiak dira baiña, iakurle meite, atzerapen auek sortzen dabezanak.

Olazar ta Uribe´tar martin, Euskerazale Alkartearen ta Euskerazaintza´ren lendakari eta aldizkari onen egille ta zuzendariaren eriotzagaz, 2.008´ko Irailla´ren 20´an, andiena.

Ez gitxiago, San Sebastian ta Zubillaga´tar Joxe Mari´ren (Latxaga) eriotzagaz, 2.008´ko Abendua´ren 12´an sortu jakunekin.

Eta, lendakari ta zuzendari barria aukeratzeko bear diran agiri–sortak (protocolos), egon garan zurztasunetik (desamparo) urteteko.

Nik ez dakit, JAINKOA´ren ZERUTIK, joan jakuzan Martin, Latxaga, Latiegi, Zubikarai, Zubiri eta ainbat gizon–emakume Euskera–zain gogoragarriak, lagundu al–dauskuen. JAINKOA´k bizitz onetara, eragille edo ordezkoreen–arduradunak izatera bialtzen daukulako.

Baiña badakit, gure EUSKALERRI MAITE onen seme–alabetan, Erri–Euskera´ren arduradun zintzoak daukaguzela, eta Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio klaretiar–lekaidea da, Euskerazaintza ta Euskerazale Alkartearen lendakari ta zuzendari barria.

Eta bera izango da, urrengo Euskerazaintza Aldizkariaren ATARIA aurkeztuko dauana.

## ZENBAKI ONEN GAIK:

Irakurle!

Emen dijoakizu Euskerazaintza gure aldizkariaren 2.009´n urteko lenengo zenbakia. Asko poztuko giñake, zuri atsegingarri eta Euskal–arlo batzutara sartzeko bide argi izatearekin.

Lenengo idaz–lanean:

Bertsolaritza´ren edesti labur bat daukazu, Legarreta´tar Asier´ek: “Euskerazale–Alkartearak ia sortu zanetik, urte guztiko Azaroa´ren illerako antolatzen dauazan “Euskal–Asteko” itzaldiak, 2.008´ko urtean esan ebena, eta eskuetan daukasun aldizkarian aurkezten doguna.

Asier´ek, Bertsolaritza neurri–zaarretan zer dan argitzen dauku eta mailla ezberdin–bitan banatzen dau: “Textulariena” eta “Koplariena”, ondo azalpenduta.

Kanta-Zaarrena zer dan ondo argitzen dausku, gertaerako abesti politak aurkeztuz.

Gero, gaur-eguneko Bertsolaritza zelan aurkitzen dan erakusten dau, bai-ta bertsolaria trebe ta antzetsu izan dagian, zortziko-txiki ta andiko bertso´en teknika maillan ibili bear dauazan neurriak, ondo adierazpenduta.

### **Bigarren idaz lanean:**

Erbiti ta Arbilla´tar Bakarne´k, Garde´tar Marzelino apaiza´ren buruz, iru zatitan adierazten dauskuna.

Lenengoan: Nafarroa´n Euskerea berpizteko, zelako garrantzi aundia euki eban on-Marzelino´k, bere edesti labur-bat, zeatz edo ta sakon aurkeztuta.

Bigarreanean: Marzelino, noz jαιο zanetik, zelako ikas-bideak bete ebazan abade egin arte, eta Euskereagaitik euken griña.

Irugarreanean: Zelako lana egin eben Erria´ri begira, euken ziñesmenaren esae-razko elburuagaz "EGIAK ASKATUKO ZAITUZTE" Nafar-Erritarrak Euskera´ra bideratzeko alegiñean, eta Erronkari´ko jendekuntza<sup>(1)</sup> biztu dagian.

Irakurle maite, izan dakigula gaurko alkar-izketa au, onuragarria !.

**Atutxa´tar Paul**  
EUSKERAZAINTZA´ren idazkaria.

(1) Jendekuntza = civilizaciòn.



# BERTSOLARITZA

Bertsolaritza gaur egun, gitxi gorabera zelan aurkitzen dan, danok dogu idea bat. Sarri ikusi dozuez bertsolariak, erri txikietako frontoi edo zine baten egindako jaialdietan. Gitxi gorabera ba daukazue idea bat gaur egun bertso-laritzza zelan aurkitzen dan. Baiña gauza interesgarria da, bertsolaritzaren eboluzioa zelan sortu izan dan, zelako maillak izan dituan, eta gaurko egoera onetara zelan eldu dan jakitea.

Gaur eguneko arte guztiak ,edo geienak, arte legez mantentzen dira. Ez daukie beste arrazoirik, atsegin bat sortzea baiño, zentzunari gustu bat emon, eta norberen pentsamendua ta irudimena aberastu, andik gozamen bat zortzeko. Eta esan leike, gaur egun bertsolaritzak be, beraren eginbe-arririk andienatarikoa orretan daukala. Baina arte geienak arte izatera eldu baiño lenago, ba eukien beste arrazoi bat. Ez ziran sortu arte izateko. Gi-zarteko, gizonen arteko, premiña batek edo bearrian batek, sortuak dira arte guztiak, ofizio modura.



Esate baterako, gaur egun pintore batek koadroak egiten ditu. Eta koadro orreik geure atsegiñerako edo etxea apur bat apaintzeko edo olako zeozertarako erosten dira. Sasoi baten, pintura orreik gaur baiño bearrezkoagoak ziran. Gaur egun edozein irudi eukiteko, fotografia bat naiko dogu. Baiña fotografia munduan sortu baiño lenago, zelan edo alan agertu bear ziren gizonen eta gauzen irudiak, eta orduan arrazoi orregatik sortu ziren pintoreak. Gero fotografia agertueran, ez egoen irudiak gordetzeko pintoreen bearrianenik, eta pintoreak eta pinturak artista eta arte modura iraun dabe gaur arte.

Bertsolaritzak be, sortu zan momentuan, ba eukan gaur ez daukan beste arrazoi bat. Antziñako denporetan, gizonak idazten eta irukurten ez ekien sasoiari, errian egoen kultura guztia, belarriz entzun, buruz jaso eta aoz irakatsiaz, mentendu bear izaten zan.

Baiña jakintza ori, denpora joanez, gero eta aurrerago, eta gero eta aberatsago zanez, gaitza zan gauza guztiak buruan gordetzea. Ez zegoan liburu-rik, ezegoan inprentarik eta dana buruz gorde bear zan. Gizonaren biblioteka bakarra memoria zan. Jakintza ori ugaritzean sistema bat bear zan, gizonak al ebanik eta gauza geien buruan artzeko eta gordetzeko. Eta neure ustez ortarako sortu ziran, berba neurtuak, itz neurtuak, edo gaur egun bertsoa deitzen dautso guzan esaera orreik. Bertsoz entzundako gauza bat, askoz gusturago entzuten da, ta askoz errazago gordetzen da buruan. Zeuok be konturatuko zarie, umetan, gaztetan, poesia edo bertsoaren asera nonork akordatu eragiten ba eutzuen, asera orrek berez ekarten eutzuezan beste ondorenak, beste puntuak, eta sarritan aztuta egoela uste genduen bertsoa gogoratzen genduan, asera emon euskuelako.

Ori da, bertsoak daukan neurria eta rimak alkarregaz josita doazelako, eta rima bat entzutean beste rima batez erlaziatu daualako, beste rima bat gogora ekarten dausku. Neurria be, puntu bat entzutean, beste puntu bat instintora ekarten dausku.

Or ikusten da, garbi eta argi, memoriari laguntzeko gauzak bertsoz jartzea praktikoago dala, itz lauz berba eginda baiño. Neure ustez, au izango zan gizonak berbak neurtzen eta dotore ipintzen asteko arrazoiak.

Bertsolaritza gaurko maillara eldu baiño leen, beraren eboluzio barruan iru mailla dituela esan daiteke

Lenengo mailla TEXTULARIENA da. "Textulari", berba au ementxe MUNGIALDEAN entzun dot nik lenengoz. Beste errietan ez dot uste esan bere egiten danik, "Textulari" berba. Textularia ba dakizue, zer dan: nonork zeozer esan, edo zeozer itandu eta bertsoz erantzuteko oitura daukanei, MUNGIALDEAN, ni alan nago entzunda, textulari deitzen dautsie.

Textuak, geienetan, rima biko esaerak izaten dira. Esate baterako "Gazteak, buruan besteak", "Arrausi luzea, loa edo gosea". Ikusten dozuenez neurri ez dira bardiñak; alan da be, ez daukie beste teknikarik, rima bien barruan sartzen dan esaera batena baiño. Textularien esaera orretatik sortu ziren EUSKAL ERRIAN ain ugari diren esaera zarrak. Esaera zar orreitan esan leike gordetzen dala EUSKAL ERRIKO filosofia guztia, erriaren filosofia guztia.

Au textulariaren mailla da. Gero beste mailla bat dator, askoz aberatsagoa, neurri jantzitako esaera- mailla:

## Koplariena

Koplariak bertsolarien antzekoak dira, baiña bertsolariak euren bertsoak gitxienez lau puntukoak egiten dabez, lau rimakoak. Koplarienak, ostera, kopla geienak puntu bikoak eta batzuetan irukoak dira. Esaera zarren rimatik aparte, ba dabez beste aberastasun batzuk bere, neurria eta doiñua. Esaera zarrak, textuak, esan egiten dira, koplak ostera, bertsoen antzera, kantatu egiten dira. Neurria, gaurko bertsoen antzekoa daukie.

Kopla-kantuen artean era bitakoak berezi leikez: eskabidezko eta dantzarako koplak.

Eskabidezko kopla entzutetsuenak, EUSKAL ERRIAN, Santa Ageda bezperakoak, Gabon jai aurreko egunetan kantzen diranak, eta GIPUZKOAN eta beste toki batzuetan, San Juan bezperan kantatzen direnak. Kopla onein doiñuak geienetan umillak, motelak, apalak, izaten dira: eskean umil, eta apal ibili bear dalako. Ritmoa be ,apala ta astirotsua . Esate baterako, Santa Ageda bezperan, talde bat koplaria aurrean dagoela, santaeskean etxerik etxe, ikusiko dozue. Konturatuko zarie danak doazela makilla banarekin; makilla orrek markatzen dau pausoa, eta makillak eta pausok markatzen daben ritmoa geldiro erabiltzen dau koplariak, koplak kantaeran. Eta kopla orreik geienetan, ba orixe: moteltxoak eta umillak, begirunez eskatzeko.

Alan ta guztiz bere, koplaria ona bada beintzat, kopla orrein bitartez agertzen dau sarri beraren egokitasuna eta bizitasuna. Zorroztasuna batez bere. Bein Gipuzkoan ba ebillen koplari talde bat Santa Ageda bezperan etxerik etxe; eldu ziran baserri batera, eta an ekin eutsoen luzaro. Koplaria nekatuta ebillen, kanta eta kanta; iñor ez zan atera urtetan limosna emoten. Baña olako baten taldeko bat urreratu jakon koplariari eta esan eutson; “Ba da etxe onetan Patxiko izeneko mutil zar bat, bertsozale andia. Bear bada arixeri zirikada bat botako bazeunskio, arexe jaikiko litzake, arexe emongo leuskigu limosna bat”. Eta au entzunez batera, koplariak era onetara kantatu ei eban:

**Etixian ba da Patxiko;  
ez dot oraindik etsiko,  
ez ote iaku tardatu bage  
limosnarekin jatsiko.**

Kopla au entzunagaz batera, Patxiko orrek, tak, biztu ei eban kuartuko argia eta andik apur batera etorri ei zan limosnarekin. Artean oe epelean koplak entzuten egoela, zenbat eta luzeago ba...gurago. Baiña ain zorrotz eta ain egoki jaurti eutsonean, ez euken beste erremediorik jaiki eta limosna emotera etorri baño.

Beste bein Motrikon (ba dira bertsolariak koplari modura bakarrik ibiltzen

direnak, eta orretarikoa da “OKELAR” deitzen dautsoen Motrikoko koplari bat) OKELAR au eta beraren koadrilla, eldu ziran baserri batera, eta euren kantaldia egiten ibilli zirela, olako baten, atea apurtxo bat idegi, andik eskua atara eta... bota eutson koplariari ankartera, bere limosna. Eta neska zaar bat zanez limosna ori bota ebana, koplariari ez jakon gustatu neska zar arek limosna emoteko erabilli eban modua.

Iru lau bertso bota eutsozan limosna emoteko sistema ori kondenatuaz. Akabuera era onetara emon ei eutson:

**Orrelakorik ez da egiten  
Santa-eskeko langintzan  
karien kara jarri bazina  
igual gustatuko nintzan.**

Esan gura dodana, naiz eta koplak eta doiñu umillak eta apalak izan, koplariak ba dakiela doiñu orren barruan bere, beraren egokitasuna eta beraren zorroztasuna agertzen.

Askoz alaiagoak eta biziagoak, piper eta gatz geiagokoak dira dantzarako doiñuak. Ezagunak dira geienak, biziak eta euren pikardia daroenak. Esate baterako arin-arineko doiñuetan, sarri entzunda izango dozuez era ontako koplak:

**Markina-Etxebarriko Maria Erramona  
Markina-Etxebarriko Maria Erramona  
emoterik ez, baña borondate ona,  
ai ai ai borondate ona**

**Tturruku ttuku ttuku niri ez ikuttu  
Tturruku ttuku ttuku niri ez ikuttu  
ama ganbaran dago, sentittuko gaittu,  
ai ai sentiduko gaittu**

Fandangoan erabiltzen direnak bere politak dira, nai eta geldiroagoak izan. Esate baterako:

**Mendi altuan edurre,  
bota surtera egurre.  
Alaba galanten amak,  
mutil zantarren bildurre.**

Beste bat:

Adios eta ba nua,  
adios eta ba nua,  
ontzi barrire soldadu,  
ez dot gure joan, baiña  
eroango nabe seguru.

Ikusten dozuenez, dantzan erabiltzen diren edo erabiltzen ziren koplak politagoak, biziagoak eta grazia geiagokoak dira.

Irugarrenez, bertsolaritzaren barruan, bertsolaritzaren zer ikusiaren barruan, ba da beste aberastasun bat, Euskal Erriko literaturan garrantzi andia daukana, aozko literatura.



## Kanta zaarrena

Euskal Erriko Kanta zar geienak, ez dira besterik lenagoko koplarien koplak batzuk baiño, erriari gustatu, erriak jaso eta gero gizaldirik gizaldi kantatuaz, gureganaiño eldu direnak. Esate baterako, mugak andiko abesti bat, ezaguna emendik bere, oso zabal erabilli dalako. Eta garbi ikusten da bertan, kanta zar ori zelan dan koplari batek sortutakoa, koplari bat errondan joan bere lagunekin, maitearen etxera eldu, maiteari urtetako deia egin, maiteak erantzun eta alan. Leenengo bertsoa, koplariak kantatzen dauena, orain kanta zar moduan erabiltzen dana, era ontara da:

Maitia jaiki jaiki,  
ez aal zirade loz ase?  
Errondan gatozenak  
ez bait girade oale.  
Iriki zazu, portaine ori,  
adizkideak girade.

Eta barrutik neskaren erantzuna. Ezagunagoa da.

Ez dautzut irikiko  
gau ilunean, aterik.  
Barrengoak ez daki  
kanpokoaren berririk.  
Zatoz ,eguna argitzen denean,  
egongo gira elkarrekin.

Garbi ikusten dozue, koplak oneik edo kanta zar oneik, koplarien batek alako zirkustantzia baten sortutakoak direla. Bizkaian bere ba daukagu era one-tako beste kanta zar bat; eta kanta zar orretan be argi eta garbi ikusten da koplariaren influentzia, koplari batek sortutakoa dala, "Ama zureak neuri", deitzen dan ori. Or, itxuraz, koplariak izango eban maitearen bat, neskaren gurasoak akorduan ez, berarekin ibiltzen itxi ez, edo olako zeozer, eta orduan koplariak koplak batzuk sortzen ditu. Era ontara:

Ama zureak, neuri  
bidian pasauta,  
ez deust agurrik egin, maitia  
burua jirauta  
ai ai ai  
ez deust agurrik egin, maitia.  
burua jirauta.

**Ama zureak, neuri  
agur ez eiteko.  
Zer palazio daukat maitia  
zuri donetako.**

Au kanta zar moduan ezagutuarren, garbi garbi ikusten da koplak zar batzuk direla, gero kanta zar moduan gelditu direnak.

Eta kanta zarren urrengo, eldu gara onez gero, gaurko bertsolarien izatera edo egoerara.

Esan leike puntu onetaraiño Euskal Erria, euskera, beste erriekin, beste izkuntzekin batera, antzean ibilli dala. Ez dogu iñoiz pentsatu bear, bertsolariak, koplariak, olako artistak Euskal Errian bakarrik izan diranik. Lenagoko erri zarretan, garbi ikusten da errezuak, legeak eta gauzarik jakingarrienak bertsoz agertzen zirela. Eta esan dodan moduan, puntu onetaraiño, mailla onetaraiño, erri guztiak izan dabe aozko literatura bat, olako bertsolaritza moduko zezer.

Juglarrak edo trobadoreak, olakoak izaten ziren Erdi Aroan. Baiña puntu onetara eltzean, agertu zan imprenta, agertu ziren liburuak eta len ezan dodan moduan, ez zan preminazkoa, ez zan derriorrezkoa, gauzak eta kultura gaiak, bertsoz jartzea, buruz ikasteko arrazoirik. Orduan inprentaren erraztasuna zala bide, itxuraz, erri askotan galdu egin zan bertsoz jartzeko sistema edo joera ori. Baiña euskaldunok irakurtzeko eta idazteko, orain bere bai, eta leen bere bai, alper antzekoak izan garenez, luzaroago segitu dautsogu gure sistema zarrari eta bear bada bertsolaritzari begiratuaz, bat egin dogu orretan. Imprenta martxan dabilela geure bertso legetan jarraitu dogu eta alako baten, irakurtzea eta liburuak erostea komeni dala konturatu garenen, imprenta orren laguntzaz, bertsolariak eurak asi ziran bertso paperak egiten, bertso liburuak ataraten, eta bertsolariak estankatuta gelditu bearrean, beste indar barri bat artu eben. Eta imprenta, gauzak bertan bera izteko arazoa izan bearrean, aberastuteko arrazoi bat izan zan, euskaldunontzat, Euskal Erriko bertsolarientzako.

Orrexek dira neuk, neure iritzi baten, ikusi dodazan arrazoiak, bertsolaritzaren arrazoiak, eta bertsolaritzaren eboluzioan aurkitzen diren maillak.

Orain ikusi daigun gaur egun bertsolaritza zelan aurkitzen dan. Eta orretarako, lenago, gaurko bertsoak zelan egiten diren, zelako teknikagaz, zein bertso erabiltzen dan geien, ikustea izango dogu onena.

Bertsoaren teknika, erriak ez dau beti ezagututen. Gitxi izaten dira bertsoak zelan neurtu eta zelan rimatu bear dan dakienak. Ementxe tableroan jarriko deutzuet zortziko nagusi bat; geien erabiltzen dan bertso era da. Eta oso errez ikusiko dozue zortziko nagusiak ze lege dituen, zelako neurria izan bear dauen eta rimaz bere, zelan jokatu bear dan zortziko nagusiaren barruan.

San Inazio, militarra zan	10
eta arretaz, aditu	8
Aregandikan, Euskal Erriak	10
bentaja oso gutxi ditu	8
errian alde, jokatu gabe	10
erderaz gailen, gelditu.	8
Obe zuen ark, Ejerziziuak	10
euskeraz egin, balitu	8

Oraintxe gogoratu dodan bertsoa, Muniategi bertsolariarena da. Bertso onen bitartez ikusiko dogu zortziko nagusiaren teknika zelakoa dan. Zortziko nagusiak, ikusten dozuenez lau rima ditu. Bertsolari onek geienetan azkeneko silabak eta azken aurreko bokalak, bardiñak jartzen dabez rima guztietan. Neurri aldetik lenengo lerroan amar silaba artzen ditu. Erdian eten bat bada, bost eta bost, eta bigarren lerroan zortzi silaba artzen ditu, bost eta irutan bananduta. Sarritan, bigarren lerro onen neurri au, edo eten au, bertsolari askoren artean ez da aintzat artzen. Bertsoen legetan, amar silaba baiño gutxiagoko lerroetan ez da derrigorrezkoa, eta oso gaitza izango litzake bertso guztiak era onetara, bost eta iru, zati bitan jartzea. Orregatik ori ez dau aintzat artzen bertsolariak.

Bertsolariak neurria ondo betetzeko lizentzia batzuk erabiltzen ditu sarritan:

Sinalefa: Diptongo ez diren bokalak diptongo bezela erabilliz.

BA – SO – A. Alan banatzen da, baiña BA – SOA egiteko lizentzia dabe.

Sineresia: Bokala kendu eta beraren kontsoantea urrengo bokalekin batu.

GAU – TA – E – GUN lizentzia GAU – T´E – GUN

Dieresia: Bokal bi diptongo direnean ez balira bezela kontsideratu

AI – TA baiña lizentziarekin A – I – TA.

Zortziko txikia zortziko nagusiaren antzekoa da, baiña silaba gitxiago dira, zazpi eta sei. Rima bakoak, zazpi silaba daroa eta rimadunak, sei. Ez dauka beste alderik.

Doiñu aldetik, lenago, orainarteko bertsolariak entzun arte, bertsotan erabiltzen izan diren doiñuak, motel antzekoak izan ziran. Lenagoko bertsoen doiñuen arrazoia ez zan orain esango dodana besterik: sasoi batean eze- goen mikrofonorik eta jendeari entzun eragiteko, bertsoak esan bearrean, kantatu moduan bota egin bear izaten ziran. Baiña kantu modua baiño geiago, boza zelán edo alan altxatzeko era zan, erriak edo entzuleek obeto entzuteko.



Orregaitik lengo doiñu zarrak rezitatibo antzekoak ziren, melodia gitxikoak. Ez euken beste arrazoirik ori baiño, boza altxatu apur bat, jendeak entzuteko.



Azken aldiko urtetan bertsolaritza apur bat modernotu gurean edo, erriko melodia modernoak artuaz, esate baterako Iparragirrenen zortzikoak eta beste olako doiñu biziagoak eta alaiagoak artuaz, bertsoa obeto jantzi guzuz, aldakuntza andia izan da, bertso kontuetan. Gaur egun doiñu biziagoak eta alaiagoak erabiltzen dira. Zortziko txikia gai xelebre edo biziak direnean erabiltzen da geien bat, bertsolariari tema jarri, neskatillen kontuak edo mozkortienak eta orduan erabiltzen dau zortziko txikia, biziago eta alaiago agertu daiten. Puntua jarrita bere, erabiltzen da bertsoa egiteko. Esate baterako lenengo puntua gai jartzailleak jartzen badeutso,ta bertsolariak beste iru puntuak eginda, osatzen dau bertsoa. Puntua jartzeko eta erantzuteko ejenplu modura, LAZKAO-TXIKIK bein kantatu eban zortziko txiki bat kantatuko dautzuet.

**Abadeak ..... Apaizak eskabide  
asko izaten du**

**Lazkao-txiki ..... Bera ola da eta  
orgatik esan du  
ez dunari eman ez,  
daukanari kendu,  
bizitzen galarazi,  
ta iltzen lagundu.**





Bertso au, oso famatua egin da Euskal Errian eta Gipuzkoa alderdian; ez da bertsolaririk, bertso au ezaguzen ez dauenik.

Ba da beste bertso era bat, eta bertso era ontan erabiltzen dan doiñuari “Iparragirrenen doiñua” deitzen jako. Ez dakigu Iparragirrek sorturiko doiñua dan, ala Xenpelarrek Iparragirreri bota eutson bertso baten doiñua dan. Orregaitik deitzen dautsoe Iparragirrenen doiñua. Ez dakigu nork sortua dan, Iparragirrek ala Xenpelarrek.

Iparraguirre, danok dakigunez bertsolaria baiño geiago, kantante bat zan. Beraren doiñuak, bere zortzikoak, sortzen ebazan, alan olako bertso batzuk jarri doiñuen barruan, eta egiten zituan beren exhibiziñoak.

Kantaldia egin ta gero tabernetan eta leku askotan sonrerrua pasatsen eban, txanponak batzeko. Alako batean Iparragirrenen lagunak, Xenpelar bertsolariari, baserritar bertsolariari, adarra jotzen asi jakozan, ez ekiela musikarik, ez eukela eskolarik eta onako gauzak ezanaz. Xenpelar apur bat minduta edo berak bere zeozer erakutsi gurean, Iparragirreri desafio modura bertso bi bota eutsozan, Iparragirreri edo Iparragirren lagunei. Eta ortxe ikusiko dozue zelako bertso klasea dan au. Bertso onetan, leenengo puntu biak zortziko nagusiaren puntu normalak dira. Gero beste puntu txiki bi sartzen dira, rima diferentean, eta azkaneko beste puntu biak batzuetan leenengo puntu biekin rimatzen dabe edo beste batzuetan erdian sartzen diren puntu txiki bi orrekin. Era ontara kantatu eutsen Iparragirrenen lagunei Xenpelar bertsolariak.

**Iparraguirre abila dela, askori diot aditzen  
eskola ona eta musika, ori oiekin zerbitzen  
ni ez nauzu ibiltzen  
kantuz dirua biltzen  
komediante moduan  
festa de balde preparatzen det  
gogua dedan orduan.**

Orregaz Iparragirreri puntu debilla arrapatu gura eutson esanez: “Zuk kantatzen dozu, baina gero komediante moduan dirua batzen ibiltzen zara”. Nik ez dot egiten olakorik, nik kantatzen dot ,baiña gogua daukadan lekuan. Ezer kobratu barik egiten dot neure jaia. Eta gero desafio modura botaten dautso bigarren bertsoa.

**Eskola ona eta musikua, bertsolaria gaiñera  
Guk ere zerbait egingo degu, olan ornitzen bagara.  
Zatoz gure kalera  
baserritar legera  
musika oiek utzita.  
Erreterian bizi naiz eta  
egin zaidazu bisita.**

Ez dot uste bertsoetan konpetitzeko, Iparraguirre Xenpelarregana, Erreteriarara, joango zanik. Iparraguirre kantante on bat zan eta Xenpelar bertsolaria.

Ba da beste anekdota polit bat eta onen bidez ezagutuko dogu beste bertso era bat.

“Ai-zak-i-motel-mañontzi”, olantxe deitzen jako bertso klase oneri. Ain zuzen bere, leenengo ezagutzen diren bertsoak era ontara asten direlako. Xenpelarrek artzen dau emen bere parte. Xenpelar fabrika baten enkargadu modura egoen, eta fabrika artan ba zan MUXARRO, izeneko beste bertsolari bat, peoia, arlote antzekoa. MUXARRO arek, erretzeko afezino andia ei euken, eta fabrika aretan debekatua egoen zigarro erretzea. Muxarro bere bearra itzita noizean bein comunera joaten zan. Eta komunean asten zan zigarroa erretzen. Xenpelarrek enkargadu modura atentzinoa artu gura izan eutson bein, eta....., bertsoz era ontara kantatu eutson:

**Ai zak i mañontzi  
Urrengorako gorantzi  
ez al dakikan ortik batzia  
ez dala lizentzia.  
Jenio txar oiek utzi  
bestela ezurrak autsi  
giza legia nola bear dan  
ezin erakutsi.**

Eta MUXARRO, bera bere, bertsolaria zan ta, naiz eta bera beste ez izan, bizi bizi zutunik jarri ta era ontara asi zan kantari:

**Nik ba det giza legia  
Prantzisko baiño obia,  
beste tatxarik ez det arkitzen  
arlote probia,  
jenioz oso noblia  
indartsu pare gabia  
neri ezurrak austeko  
nun dek abilidadia.**

Eta jarraitu eben, bien artean dozena bat bertso osatu arte.

Onexek dira ba bertso klase garrantzitsuenak edo ezagunenak.

Orain, bertolaritzaren istoriari begiratuaz, zeintzuk bertsolariak izan diren famatuak ikusiko doguz. Eta lengo zarretatik onantz, zelako bertsolariak agertzen joan diren eta bakoitzak zelako bertsoak edo zelako egin-bearrak bete dituen.

Baiña aurretik, bertsolariak ze eginbearra bete bear daben erriaren aurrean. Iru zatitan jarriko nuke nik bertsolariaren eginbear ori.

Lenengo eginbear modura, bertsolariak neure ustez, erriaren gogoia agertu bear dau. Erriaren alaitasuna, erriaren penak, erriaren sentimendu guztiak agertu bear ditu, erriaren errepresentante modura, erriak berarekin konfiantza euki daian.



Orrez aparte bertsolaria, naiz eta sarritan jakintsua izan ez, maisu modura agertu bear izaten da, erriari gauzak erakutsi bear izaten dautsoz, eta ain jakintsua ezpada, bearrezkoa izango dau jakintsuago direnekin, naiz eta bertsolaria izan ez, gizon jakintsuekin artuemonetan egotea, gero gizon jakintsu orrein arrazoiak bereganatu, arrazoi orreik errian zabaldu daiazan.

Orregaitik bertsolariaren bigarren egin-bearra bitartekoa izatea, jakintsuen eta erriaren artekoa, jakintsuengan jaso arrazoiak eta erriari erakutsi.

Eta irugarren eginbearra erriaren aurrelari izatea. Jakintsuen arrazoi orrek errian zabaldu eta erriak bide on bat artzen daunean, bertsolaria izan bear leuke, erriaren erabaki edo gogo ori agintarien edo entzutea komeni jakien aurrean, agertu bear dauena. Aurrelari agertu bear leuke bertsolariak, erriko maioria baten gogoia ateratzen dauenean, gogo ori zelan edo alan agirian ipintzeko. Alan iru gauza dira, bertsolarien egin-bearretan, garrantzitsuenak: Erriaren gogoia agertu, bitartekoa izan, jakintsuen eta erriaren artean, eta gero, aurrelari, erriaren erabakiak bear diren tokian kantatu eta entzun bear dauenari entzun eragin.

Eta orretarako bertsolariak bear dituen doaiak edo birtuteak, iru oneik jarriko neukez garrantzitsu modura:

**Bat:** lenengoa zorrotasuna. Arrazoiak naiz txisteak motel esaten badira, ez dau efeko andirik egiten entzulengan. Biziak eta erriak gogoz entzuteko modukoak izan bear dabe, zorrotzak.

**Bigarrena:** bigarren doaia edo bigarren birtutea, sakontasuna. Sarri askotan erriak ezagutzen ditu arrazoiak edo jakin bear dituan gauza guztiak, baiña bearrezkoenak aztuta eukiten ditu edo bertan bera itzita. Bertsolariak noiz-beinka, erria zirikatu eta erriak gogoan euki bear dituen arrazoi edo sentimendu garrantzitsuenak bertsoz jarri, eta erriak gauza barri modura entzuten ditu, artean iñoz entzun ez baleu lez, bertsoz gusturago entzuten dituelako eta arrazoi orrei beste alderdi bat ikusi dautselako.

Eta irugarren birtutea edo doaia, egokitasuna, lekuan lekuko izatea. Oportuno izatea. Bertsolariak zuur egon bear dau gauzak noz eta zelan esan bear diren jakiteko. Ortan dago egokitasuna. Alan dira iru doaiak: zorrotasuna, sakontasuna eta egokitasuna. Eta beste barik ikus daiguzan orain, istorian zear, ze bertsolariak izan diren entzutetsuenak eta al dan modura, bakoitzak zelako doaiak eta zelako erantzuna emon dautsen iru egin bear orrei.

**Bertsolariaren Istoria,** benetako istoria, Fernando Amezketarakin asten da. Artean bere, ba ziran bertsolariak Euskal Errian, baiña gauza gitxi jakin dogu euren-bizieraz. Badakigu NAFARROAKO Errege Gortetan bazirela bertsolariak, Kastilla gortetan juglarrak edo trobadoreak izan ziran moduan. Izen batzuk ezagutzen doguz: Beñat, Gartsot. Baiña bertso gitxi eldu dan lez guregaiño, orrek preistoria modura izten doguz, iluntasun baten gelditu diralako. Baiña garbi eta argi ezagutzen dogun lenengo bertsolaria, eta istorian lenengo modura jarri leikena, Fernando Amezketarra dogu. Fernando Amezketarra non jaio zan, dudak, eztabaidak, dagoz. Batzuk diñudie Billabonan eta beste batzuk Amezketan. Dana dala 1764 ean jaio zan eta 1863 il, eta bere bizitzako denpora geiena Amezketan egin eban eta Amezketar moduan ezagutzen dogu.



**FERNANDO  
AMEZKETAÑA**

BERE ATERALDI TA GERTAERAK  
G. MUXIKA

Pernando Amezketarra izen andikoa da Euskal Erri guztian, bai bertsoegaitik eta baita bere esaera edo bere texto, eta bere ipuiñetatik. Ez dira bere bertso asko eldu guregana, baiña gauza bat ikusten da: erriak mitifikatu egin dauela. Au da, sarri askotan edozein ipuin norena dan jakin barik, Pernando Amezketarrena dala esaten da. ¿ Zergaitik? Ba, erriak P.A. aintzat artzen dauelako, eta duda barik, bertan ikusten da bere denporan, influentzia andia izan ebala errian, eta erriak aintzat artzen ebala eta aurrelari moduan jokatzeko ebela. Ez dira bertso asko ezagutzen Pernandorenak, baiña ba ditut emen bi edo iru. Esate baterako bat, bederatzi puntukoa. Zelako erretirua gurago leuken agertzen dau berak bertso onetan.

**Erretirua ona agindu  
parranderuarekin  
ez iñoiz bildu  
zaartzerakoan oi gera  
geienak umildu  
ai, nagusi on batek  
artuko banindu  
karga bat arindu  
sabela berdidu  
soinean apaindu  
lanik ez agindu  
konponduko gindezke  
ori bagindu.**

Bertso onetan, zelako nagusia gurago leuken agertzen dausku Pernandok. Eta ba da beste anekota politago bat P.A.k erriko parrokoarekin izan ebana. Sasoi artan, ba dakizue, ze oitura egoan, Bazkoz-koa egiteko. Erriko parrokoak examiña eiten eutsen bere feligreseri eta examiña orretan dotriñaz eta beste gainerako gauzez, aprobatuta jotzen bazituen, txartel bat emoten eutsen sarrera modura, elizara joan eta euren Jaunartzea egiteko.

Amezketan bere, oitura ori egoan leku guztietan legez, eta Pernando beste guztien moduan joan ei zan parrokoarengana bere urteko examiña egiteko. Ta parrokoa bera be bertsolaria edo erdi bertsolaria zanez, galdera edo itauna bertsoz egin eutson era onetara:

**Esan bear didazu  
instante batean  
liburutik txartela,  
atera artean,  
nolaz sinesten dezun,  
zuk zeure artean,  
daudela iru pertsona,  
Jainkoa batean.**



Eta Pernandok, konparazio baten bitartez, erantzuten dautso. Eta bertso orren ostean, uste dot, parrokoak emongo eutsola merezi eban txartela:

**Nolaz sinesten dedan  
arrazoiarekin orain diot  
sagartxo batekin:  
usain ta saporea  
kolorearekin,  
orra iru genero,  
gauza batekin.**

Garbi ta argi ikusten da Pernandoren zorroztasuna bertsoa kantatzeko sasoiak.

Fernando Amezketarraren urrengo, ezagutzen ditugun izenak beste aldeko, mugaz andiko, Echahun eta Bordel Luzaideko ditugu.

Etzahun orren bertsoak ez daukat emen, baiña bertsolari liriko utsa zan. Asko sufridu eban bere bisitzan. 1786 ean jaio zan eta 1862 ean il. Ba dakigu lirikoa zala, eta satira aldetik be naiko ondo jotzen ekiela, orduko jauntxo eta klase orren kontra. Lirismo aldetik aren ondoan edo aren sustraitik datorrena XALBADOR dogu. XALDABORREN jokera, ETXAHUNEN sustraitik datorrela izan leikela uste dot nik. ETXAHUNEN bertsoak antz andia daukie XALBADORREN bertsoekin. Teknika aldetik, bear bada, ETXAHUN libreago ibiltzen zan. Orduan, sasoi artan ez egoan gaur egun ain gogor eta ain zuzen dogun teknikarik. Baiña izaeraz eta sakontasunaz, biak antzekoak ikusten ditut eta ortik kalkulatzeko dot XALBARORREN sustraia ETXAHUNEN bertsoetan aurkitzen dala.

\* Kopiatzaillearen oarra: ETXAHUNEN bertsoetako bat BENITO LERTXUNDIK kantatzen duen Maria Solt eta Kaskero da

ETXAHUN eta BORDELEN urteei jarraituz UDARREGI bertsolaria dogu. 1829 an jaio eta 1895 an il. Aian jaio zan, Gipuzkoako Aian eta Usurbillen bizi. Onen bertso asko eldu da guregana, baiña bertso idatziak. Bertso paperak egiteko oitura andia egoan UDARREGIN denboran. UDARREGI ta PELLO ERROTA alkarrekin ibiltzen ziren bertsolariak ziran, ta alkarrekin teman bere iñoiz; batek bertso paper bat atara bestearen kontra, eta besteak erantzun.

Bederatzi puntuko bertso asko jarri zituen bai UDARREGIK, bai PELLO ERROTAK eta bai sasoi artako bertsolariak. Baiña UDARREGIZ ba da gauza polit jakingarri bat. UDARREGIK ez ekian irakurten ez idazten. Analfabetoa zan berez. Guk ulertzen dogun erara, analfabetozat joko gendun. Baiña ainbeste bertso jarrita idazteko, bere loba batek idazten ei ebazan. Berak sistema bat sortu eban, berentzako abecedario bat, zelako- alako bat. Aol batzuk topatu ziran bere ganbaran eta ol areitan arraia diferentetakoak.

Bere lobak esaten ebanez, arraia arekin neurtzen ei zituan , beren bertsoak, burura ekartzeko. Bertso asko jartzen zuen buruz eta gero, arraia batzuen bitartez, arraia areek eskuagaz ikutuaz, konturatzen zan zein bertso zelan kantatu bear eban. Alan, beren alfabetoa eukan, berak sorturikoa, eta naiko meritu da gizon batentzat, ainbeste bertso jarri eta danak bere alfabetoan izan eta alfabeto barri bat sortu eta ool batzuen bitartez, arraia batzuk eginez, gogoratu bere bertso guztiak. Merezi izango da UDARREGIREN bertso bat edo bi kantatzea .

Mateo, Obispo Jauna, joan ei jakon bizitatzera, UDARREGI iltzeko momentuan egoenean. Gaxorik, larri egoala jakin eban obispoak, itxura zanez. Andik suertatu eta azkeneko agurra egiten joan ei jakon, Mateo obispoa, UDARREGIRI. Eta Udarregik, bere bisita estimatuaz, era onetako agurra emon ei eutson:

**Beorren bisita ez da  
Usurbillen kalte.  
Aurrera jarrai beza,  
orrelatxe fuerte.  
Nere azken triste au  
ez dago aparte.  
Agur Mateo jauna  
Josefaterarte.**

Era ortan agurtu eban Mateo Obispo Jauna, Udarregi bertsolariak.

Eta UDARREGIREN urrengo dator XENPELAR aundia. Lengo bertsolari zarretatik, bertsorik geien jarri zituena. Eta bear bada erriari erantzunik onena emon eutsona. XENPELAR 1835.an jaio eta 1669.an il zan, ogei eta amalau urtekin.Ogei ta amalau urte bakarrik bizi zan eta ainbeste aberastasun andi itxi euskun bertso paperetan, eta baita plazetan kantatzen ibillitako bertsoetan bere. Ez zan bertsolari diplomatikoa; gauzak zorrotz ta argi esaten zituena zan. Ba zituen bertso zelebreak be, baita erriaren aurrerari modura sakon eta zorrotz kantaturikoak bere. Esate baterako sasoi artan karlistada preparatzen ibilli ziren jauntxo batzuk. Bera konturatu zan Euskal Erriak, Españako errege ta gerrakin zer ikusirik ez eukala ,eta gerra orren kontra jarri zen, eta bertso guztiz politak, doiñu barri eta ederrean jarri zituen. Orain kantatuko ditut iru lau bertso.

la guriak egin du.  
 Ba degu zeinez agindu.  
 Ez oraindik umildu.  
 Alkarrengana bildu.  
 Gerra nai duen guzia  
 berari kendu bizia.

.....

Gerraren bila gau t´egun,  
 etsaiak arturik lagun,  
 arrazoi ote degun,  
 edo zer datorkigun,  
 asitzerako pentsatu,  
 fusila nola dantzatu.

.....

Ez naiz ni gerraren alde,  
 baizik bakearen alde,  
 zeinek nai duen galde,  
 berari tira dale,  
 bala bat sartu buruan,  
 azpertuko da orduan.

.....

Alabes eta bizkaino,  
 gu gara Guipuzkoano,  
 aitak il ziren, baiño  
 semeak oraindiño.  
 legea degu guardatu,  
 letra zaarrik ez ukatu.

Bertso onetan agertzen dana, lege zarrak zirela Euskal Errian zaindu bear zituenak eta lege zarra zaintzeko ,bardin zala alako zein olako errege izan.

Gu gera iru probintzi  
 leengo legerik ez utzi  
 oiei firme eutsi  
 naiz anka bana autsi  
 jaioko dira berriak  
 gu gera Euskal Erriak

Ikusten da bertso onetan, XENPELAR leengo erako abertzale zintzo eta fina zala eta orrez gaiñera Euskal Errian ze giro eta ze problema egoen bere, garbi ikusten ebala, naiz eta baserritar arlote bat izan. Eta naiz eta gazterik il, beren denbora laburrean frutu ederrak emon eutsozan erriari, len esan dogun moduan, aurrelari modura erantzunaz.

Eta eldu gara PELLO ERROTAREN sasoirra. 1840.an jaio zan eta 1919.ean il, Asteasun, Gipuzkoako erri batean. Bertsolari bizia eta alaia zan PELLO ERROTA. Ba da bertso famatu bat PELLO ERROTARENA. Bertso orren barruan, PELLO ERROTAREN lagun ziren beste bost bertsolariaren izenak jarzen ditu . Bertso oso polita da, eta Euskal Errian, Gipuzkoan batez bere, oso ezaguna:

Emen alkartu gera  
gaur sei bertsolari  
Errekalde zarra ta  
Juan Udarregi,  
Bernardo Zizurkilgo,  
Gazteluko Gorri,  
Errenteriakoa,  
Xenpelar jaun ori,  
ni Asteasuko.

PELLO ERROTAREN urrengo PELLO MARIA OTAÑO daukagu. Zizurkilen 1857 ean jaio eta 1910ean il. Zizurkilen jaio eta Ameriketako Santa Fen il. Abenturerua zan PELLO MARIA OTAÑO, iru biaje egin zituen Argentina-rantz eta naiz eta bere gogoia Euskal Errian iltzea izan, Santa Fen il eta an gelditu zan, gure PELLO MARIA OTAÑO. Ez zan berez plazarik plaza ibiltzen zan bertsolaria. Eztarritik, samatik lakartsua edo indar gitxikoa izan zan. Ez euken bozik. Orregatik bertso jartzen famatua zan geiago, kantatzen baiño. Bein taberna baten egoala, mozkorti batek luzaroan lata andia emon ei eutson, bertso ganora bakoak kantatuz. Eta olako baten, azpertu eragin eutsonean, beste erremediorik ez eban euki, bertso gogor bat jaurtitzea mozkorti areri , eia alan isiltzen zan.

Ik baldin baeukakek  
nire katarrua  
ez ukek aterako  
olako orrua.  
Naiko kantatu badek  
ua ortik ua,  
txarrua baintzake  
a zer kankarrua.

Baiño bertso zelebreak baiño, PELLO M. OTAÑORENAK bertso sakonak eta sentimentalak dira geiago. Eta orrean artean aitatu bearrezkoa da, Ameriketako egoela, Euskal Errira etortzeko euken gogoak. Itxuraz ombu baten gaiñean eukiten eban inspiraziñoa, Euskal Erriko arbola artean balego legez. Garbi ikusten da, bertso onetan bere zaletasun ori:

**Neure lagunik maitatuena  
ombu laztana zu zera,  
orgatik nator zure kolkora  
ni malkoak ixurtzera.  
Iduriturik naramazula  
atariko intxaurpera.  
Beti izango zaitut gogoan,  
baiña joan nai det osterera,  
Euskal lurreko zuaizpe artan  
neure ezurak uztera.**

Zori txarrez an gelditu ziran ezurak eta olako baten baleike ekartzera Euskal Errira. Baiña, oraiñarte. Santa Fe.n dagoz.

Eta PELLO M. OTAÑAREN urrengo urteei jarraituz ,

TXIRRITA andia iatorku. 1860.an jaio eta 1936 il, Hernanin. Jose Manuel Lujanbio zan izenez. Mutil, zar andi bat, xelebrea baiña xelebratasunetik aparte, noizean bein jartzen zituen bertso sakonak bere, eta Euskal Erriri erantzuteko modukoak be bai.

Len esan dodan moduan TXIRRITAREN bertsoetatik famatuenatariko bat, PELLO ERROTARKIN tabernan izan eban bertsoetako bat da. Pello Errota eldu zan Hernanira uste gabean, eta taberna baten sartuta ,beren lagun batzuekin bertsoetan ekin eutsen gogor. Alako baten, TXIRRITAREN lagunena bat joan egin jakon etxera esanez: "Au da au, olako tabernan dau, PELLO ERROTA bakarrik dabil bertsoetan jo eta ke". TXIRRITA orduan, arrapaladan aurpegia garbitu moduko bat egin, eta alkondara bat garbi artu, zikiñaren gañean jantzi eta eldu ein zan taberna artara, azpiko alkondararen botoiak gaiñeko oiñalei lotuta, al eban modura. PELLO ERROTA bertsoetan egoan momentuan, TXIRRITA sartu eta enseguida konturatu zan TXIRRITAK ekarren falloaren gorabera, eta zorrotza zanez gero, zorrotz jaurti eutson lenengo dasañoa:

**Ari naizela, ari naizela  
or ikusten det Txirrita  
eta zein ez da arrituko gaur  
gizon ori ikusita  
dudari gabe egiña dio  
andregaiari bisita  
oso dotore etorri zaigu  
bi alkondara jantzita.**

Eta TXIRRITA bera be ez zan motela eta, era ontara erantzun ei eutson:

**Auxe da lotsa eman didana  
gizon artera sartuta,  
edozer gauza esaten degu  
edanarekin poztuta,  
bi alkondara ekarri ditu  
bat erantzia aztuta,  
Pellok bi nola jantziko ditu  
bat besterikan ez du-ta.**

Eta TXIRRITAREN urrengo, eldu gara Bizkaiko entzute andia dauen bertsolariengana.

KEPA ENBEITAREN sasoian bazan an emen, Laukinizen edo Mungia inguruan, EUSTAKIO URIA deitzen eutsoen bertsolari andi bat, dionez bertsolari andia eta izatez bertsolari bertsolaria, erritar bertsolaria, lau puntuan eta lengo era zarrean kantatzen ebana. Baiña ENBEITAZ eta EUSTAKIO URIAZ aparte, esan leike Bizkaian bertsolaritza, len esan dogun koplarien maillan dogula. Koplarien puntu biko bertsoa eta iru puntuko bertsoetatik aurrera, pausorik ez ebala emon Bizkaian bertsolaritzak eta ain zuzen be nik iñoiz entzun dodazanak zarren artean, lengo bertso zar batzuk eta geienak lau puntukoak: puntu bi era batera, beste bi bestera, kopla zarren antzera.

KEPA ENBEITA, bertsolari moduan agertu zanean, bazan Muxikan ARROSPIDE mediku bat, abertzale andia eta euskera zalea, euskera ondo ekiena. Biak abertzaleak. Itxura danez ARROSPIDE orrek eskola aldetik jantzi eban euskera goraberan, ENBEITA bera.

Ikusten da beren bertsoetan ortografia eta euskal literatura goraberan nainko jarria zala. Ez jako koma baten faltarik iñoiz ikusten. ARROSPIDE orrek preparatu eban euskeran aldetik eta gero Partiduak artu eban beren eskuetik, aurrelari modura, eta esan leike beren sasoian, ENBEITAK emon eikean erantzunik ederrena emon ebala erriaren aurrean.

Bertso asko dira ENBEITARENAK, asko kantatu leikezenak, baiña bat edo bi kantatuko doguz bakarrik. Bat euskaldun danon batasuna aitatzen dauan bertso bat, zortziko nagusian:

**Anaiak gara laburditarrak,  
Zuberotar ta Naparrak,  
anaiak baita bizkaitarrak,  
Giputz eta Arabarrak.  
Guztien ama, Euskadi da-ta,  
gu bere seme bakarrak.  
Mugak kendu ta jarri dezagun,  
Aberri oso bakar bat.**

Eta au baiño bertso sakonagoa, puntu geiagokoa eta bear bada momentuan, kantatu zan momentuan egokiagoa, beste au Eibarreko mitin baten kantatu ebana.

Eibarren abertzeleen mitin bat ei egoan, eta olako baten, uste barik, asi zien kirtenen batzuk Viva España edo olako deadar batzuk egiten, mitiña apur bat ebagi gurean edo. KEPA ENBEITA an egoan, eta KEPA ENBEITAREN bertso bat izan zan naiko, ango kirten jende a baretu eta gauza martxan ipintzeko. Ez dakit iñoiz entzun izango dozuen bertso au, sei zazpi puntuko bertsoa da, eta bertan ikusten da zenbateraiño zorroztasuna agertzen dauen, KEPA ENBEITA beren bertsotan. Viva España deadarka ibilli ziren momentuan, jarri zan mikrofonoan, mikrofonorik bazan ez dakit, baiña, zana zala, danak entzuteko lekuan, eta era ontara kantatu ei eban:

**Biba España didarka dagoz,  
neuk bere biba dirautzat,  
gorrotorikan ez dagolako  
nigandik españarentzat.  
Katolikuak jakin bear dau  
zer diñon Goiko Juezak.  
Besteen gauzak bakean itxi,  
zaindu bereak bakoitzak.  
Augaitik diñot, biba ,barriz be,  
izan begie españarentzat,  
baita be diñot Gora Euskadi  
geurea da ta geuretzat.**

Eta uste dot bertso onekin KEPA ENBEITAZ esan leikena esanda dagoela. Bertso au baiño oberik eta egokiagorik ez da bota leikenik alako kaso baretan.

Eldu gara ba, gaur egun bizi diren bertsolariengana.

KEPA ENBEITAREN ostean eldu zan gerra ta gerra ostean ez egoan bertso-tarako lizentzirik, baiña BASARRI andiak bere diplomaziarekin eta bere joko alako-olakoekin, lortu eban an eta emen, eskua sartzea, eta radioz eta periodokoz eta La Voz de España-n eta ortik- emendik, diplomatiku modura, lortu eban bertolaritzari oraindiño iraun bat emotea. Eta urte askotan ez zan beste bertsolaririk entzuten, BASARRI eta UZTAPIDE baiño. UZTAPIDE baserritarra, BASARRIREN gerizpean, legez jarri zan, biak erririk erri ekin eutsen luzaroan. Bien meriturik andiena, neure eritziz, lengo bertsolari zarengandik gaurko bertsolari barriengana zubi bat egitea izan da.



Ez egoen iñon bertso girorik. BALENTIN ENBEITAK, Muxikan baiño ez euken baime-nik kantatzeko. Baiña, Basarri ta Uztapide bien artean, mantendu eben bertsolaritza bizirik. Eta biek jarri euskuen zubi bat gaur-ko bertsolariengana eltzeko. Eurengandik jaso genduzen gaurko bertsolarien bertso legeak, bertso jokerak.

Orregandik aparte, azkenengo egin zen Donostiako sariketan, orain sei zazpi urte, amasei bertsolari agertu ziren:

**Zortzi Gipuzkoarrak:** UZTAPIDE, BASARRI, LAZKAO TXIKI, MITXELENA, GARMENDIA, LAZKANO, AGIRRE, LIZASO.

**Bizkaitik iru:** AZPILLAGA, MUGARTEGI, LOPATEGI.

**Beste aldekoak:** XALBADOR, MATTIN, TXANPUN.

**Naparrak be ba ziren bi:** LASARTE eta AROZENA.

Arrez gero, sortu dira beste bertsolari gazte batzuk, eta banaka banaka ba doaz lengo maillako bertsolarien tartean sartzen. Gipuzkoaldetik ain-beste dira, batez bere indarra artu dabenak, GORROTXATEGI, IGARZABAL eta beste ainbat modu onekoak. Ikusten da Gipuzkoan bertsolaritzak indar andia dakarrela.

Bizkaia bertan bere, ba doaz gero eta geiago gazteak sortzen. AMURIZA abadea, Zamora-n sei urte t´erdian egon dana. Oraintxe urten barria da, eta bertsoetan asteko gogoz dago. Teknika aldetik ondo preparatuta. Ain zuzen, uste dot geroari begira AMURIZA orrek jarri leikela beste mailla bat eta bertsolariari gaurkotasun bat emon leikiola . Lengo legeak apur bat aldatu, teknika barriak sortu, musika aldetik ondo preparatuta , kantari ona da. Oraindiño ez da plazan asko agertu.

Ortik aparte ba dira **Bizkaian** beste gazte batzuk: JON ENBEITA, INTXAURRAGA, AREITIO Olako dozena erdi bat bertsolari gazte. Esan leike geroari begira, bat edo bi beintzat anditzen joango direla.


TAKET-ORMAETXEARI buruz egindako galdeketa bati erantzuna.

Mungi aldean TAKET-ORMAETXE izan dogu bertsolaritza mantendu daue-na.Sasoi baten Muxika aldean, B.ENBEITAre, antzera. TAKET-ORMAETXE teknika ta lege aldetik normala da,apur bat be antzean gelditu dana. Baña meritua dauko:ez eukan maisurik, eta jakiña, obetu egingo zan bertsolari on bat lagun izan ba leu.Bertsolariak bertsolari izateko berezko gauza bear



dau, eta orrez aparte, maisu batzuk, ejemplu batzuk, arein teknika eta arein jokabidea ikasteko. Eta berez dan besteraño eltzeko, naiko meritu dauka ORMAETXEK.

\* TAKET-ORMAETXEARI buruz eginako galdeketa bati erantzuna. Kopiatzallearen oarra.



Legarreta ta Legarreta´tar Asier



# MARZELINO GARDE-I

## EUSKERA, NAFARROAKO ERRIBERAN

“ZER BERRI”, Iruñean argitaratzen den aldizkarian oso artikulatu interes-gariak datoz “El euskera en la Ribera” gai oni buruz. Eta ala dio Marcelino Gardez “Kargaztulun sortua, 1925 urtean”. Euskara berpiztean Nafarroan gerra ondoko urteetan pertsona garrantzitsuenetako bat izan zen. Uzta-rotze eta Garden apez egon zen. Erronkariko azken euskaldunengandik bildu zituen ango euskareriko maitasuna. Bere leenengo poesia erronkarieraz 1954 urtean “El Pensamiento Navarro” aldizkarian, “Erronkariko txoriñoa” izenarekin argitaratu zuen. 1964 urtean euskaltzaina izendatua izan zen, eta 1973’tik aurrera, “Principe de Viana” aldizkariaren arduratu zuen”.

Aren elburuko bitzitzia, esaera onetan betetzen da: “Egiak, askastauko zaitute”. Esaera au anitzetan erabili oi izan zuen- Bertzetik, oso ongi ezagutzen zuen Nafarroa Marcellinok. Ona emen kontatuko dizkizuet gertutako pasadizo batzuk Aren nortasuna ezagutzeko. Kotxe edo berebilla Seat 600 bat zuen, zozketa batean tokatutakoa. Iruñeko irrati batek antolatutakoa, galdera auxe zen: nor ote zekien geien geiena, Nafarroari buruz. Eta ara non, ateratzen duen berak sari ori.

- Bertze pasadizo bat, orain egun batzuk neroni gertatutakoa. Erronkariko emakume ezezagun batekin topatzen naiz Iruñeko Ospitalean, eta ala asten gara solasean, galdetzen diot, nongoa zen, au ta ore,

– Ni, Uztarrotzekoa, naiz..,aipatzen du-


– On Marzelino ezagutu zenuen?, galdetzen diot-

– Bai, Ura, beti bere euskarakin, erantzun zidan, “zenbat grabatu ote zion nere amari -...eta gero ara non Aren ileta elizkizunetan jotzen dute nire amak abesten zuen “- AURTZO POLITA” abestia, eta antxe asten naiz oiukatzen, elizan bertan...auxe da nere amaren kanta...!, eta antxe zeuden jendeek erraten didate”.

– Mesedez, zer ari zara...ixildu!

– Nola ixildu bear dut, au da nire amaren abestia...

Gizon onek euskararen aldeko lan arrigarria ulertzeko, eta batez ere denbora zailetan nolakoa zen izkuntzaren giroa eta zein tokitan defendatu zuen euskara jakiteko, joanen gara erriberako euskararen istoria ezagutzera. Orretarako Peio Monteano, istorian doktoredeuna bere ikerkeeta lanetan aurkitu du 1544 urteko dokumentu bat, erregeordeak eginarazitako, Erriberako istoriari, oro ar, eta Tuterakoari bereziki dagokion prozesuri interesgarrietako bat ezagutzeko aukera ematen diguna, oso gutxi ezagutzen den orietakoa. Pirinioetako iparraldean dau den eremu euskaldunetatik etorritako gazte askoren etorrera, alegia.



“Izan ere, Espainiako Inperioaren areririk andienak ziren Frantziarren eta legitimista nafarren meatxua zela medio 1544 urtean Tuteran bizi ziren “frantses” guztien errolda egin zen –“frantsesak”,ots, Frantziako mendeko lurretatik etorritako persona guztiak -.Erriberako iriburuko protokolo artxi-boan gordetzen den zerrenda onen bidez, XVI mendeko azken amarkadetan mailarik gorenera eldu zen gertakaria ikus dezakegu (Frantzia astindu zuten erligio-gerren ostean) eta urrengo mende amaiera arte iraungo zuena-

1544an, “fratzes” oriek Zuberoatik eta Nafarro Beeretik (Euskaldunen Lurra ematen zitzaizen orduan) etorritako gazteak, ein andi batean gazte oriek 1525etik asita, elduak ziren Tuterara eta Erriberako iriburuan orduan zeuden azienda andietan artzain jardun zuten.

Demografiaren ikuspuntutik, etengabeko ekarpena ekarri zuen etorrera onek eta, izkuntzari begira, aldiz, baita Erribera guztian euskararen presentzia ere. Bestetik, euskara izkuntza zuten Nafarroako iparraldetik edota probintzia euskaldunetatik etorritako populaziaren etorrera ere –detektatzeko zaila bazen ere, au ere etengabekoaorien guztien pretsentziaz geitu bear zaio. Beraz, Zamorako albaitari batek “Erreinuko protoalbeitar” izateko naia agertu zuenean, nekazari tutetar batek egion zion salaketak ez gaitu arritu bear: “euskaldun batzuek abereak sendatzeko eramaten dizkiotenean oriek ezin ulertzeak, lan andia ematen dio”.

Iparraldetik etorritako jendearen lekuko dira Erriberan dauden abizen asko: Sola, Irisarri, Lakarra, Barcos, Jusue, Baigorri, Busunariz, Oses, Mauleon, Monjelos, Chivite, Pegenaute, etab.

Eta asieran aipatu dudana bezala J. M. Bidadorrek ikerketa lanak egin ditu gai oni buruz, baita “Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra” liburuaren egileak ere dio, nola XVIII mende arte Nafarroako biztanlego geiena euskalduna zen eta erribera aldera joaten ziren aibertze ibiltari euskaldun gelditu zen antxe bizitzen. Orrek ez du erranai euskara zera ango biztanlegoen izkuntza arrunta, baino bai onen presentzia nabarmena zela XIX mende arte.

Toponimiari elduz, Jose Maria Iribarrenek bere “Vocabulario navarro” -1952-dio, Nafarroako Zona Media io mendialdea eta erribera separatzen duen lurralde zati ori dela, beeko muga jarri daike lerro irregular batean, Bianan asi eta Lazagurria, Allo, Mendigorria, Pueyo eta San Martin de Unx, Casedan bukatzen dena. Erri lerro onen azpian dagon zonaldea da Nafarroako Erribera.

Toponimiari buruz lan interesgarria Mikel Belaskok egin duena. Toponimia txikian agertzen dira izen euskaldunak bakarrik Bardeetan: Piskerra, Sardazuria, Monte-arte, Txindilamendia. Carcastillo aldean eta Aragoi ibaiaren ertzean XII edo XIII mende arte euskal toponimia zegon eta orduarte euskara mintzatu zela.

D. Marcelinon ilobian dagon il arria, Berarrek Bardeetan aurkitutako estela da.

**Xole Erbiti**



## MARCELINO GARDE II

a) AURTZAROA

b) APEZTEGIA

a) AURTZAROA

Marcelino GARDE VILLAFRANCA, Kargaztulu (Carcastillo) 1925ko urriaren 2an sortu zen. Aren aita, Anastasio Garde Goñi eta ama Genoveva Villafranca Garcés, biek errikoak. Aita, Eusko Alberdi Jeltzalekoa asieratik. Bear bada, ortik zetorkion euskal zaletasuna. onen bizibidea edo ofizioa, nekazaria eta tratantea ere. Nere aita zenak, urtez geroago, Marcelino ezagutu zuenean, oroitzen naiz nola galdetu zion,

- Nik ezagutzen dut, Garde bat Kargaztulun -
- Eta Marcelinon erantzuna – Nere aita zen –

Pasadizo onek erran nai du, leendabiziko atalan jartzen nuena, au da, Nafarroan betidanik izan zirela artu-emanak, goiko eta beeko lurraldetako jendeen artean.

b) APEZTEGIA

Gaztetxo zenean, Iruñeko apeztegiara etortzen da ikastera. Emen izaten du aukera euskara ikasteko On Blas Fagoaga, Erratzuko apez irakaslearekin, eta berak zion bezala, euskal ikasle lankideekin ere. Bainan, nolakoa ote zen gizon onen euskal zaletasuna, berak mintza arazten zion euskalduneei izkuntza onetan aal zuen geienetan. Garaikoeak, bertze anitzen artean, apez euskaldunak gero, Satrustegi eta Andonegi, azken au Ilarregin apez egondakoa.

Apeztegian nabaritu izan zen izkuntza eta Humanitateetako ikasgaietan, batez ere Nafarroako gaietan, antzina eta gaurkoetan, eta euskarakin ere: aren aita zenarekin 1936 urte aurretik asi zen ikasten Kargaztuluko batzokian, gero jarraituz aal zuen denetan. Alaxe asi zen idazten, emen jarraian dauden poesiak egiñez.

Apeztegiaren 1950 urtean, On Inocencio Aierbe, Aralarko kapelau atautxi zuelarik. Beti, kontaktzen zigun au ausardiz. Lendabiziko meza eman zuenean, jantzi zuen soina, arrebak brodatua, Kargaztulo Olivako Monastegi Klaustroetako irudiekin. Benetan, arrigarria.

Apeztegiako garaiko idazki eta poesia batzuk ditugu, bai euskaraz eta bai erdaraz ere. Batzuk gutienez jarri nai dizkizuet, ikusi ezazuen nola saiatzen

zen gazte gaztetik gure apeza.

Emen, Imanol Dagerreri, ikasle eskolakoari. (1943 GARAGARRILAN).

## AGUR

Imanol, nere adiskide maitea,  
Eldu da ikaskai azkenekoa  
Eta gu, gaurtik aldegiten gera...

Baña, daukagu biotz beroa  
Ta maitasunbez betea.  
Gu, adiskide, beti elkartuak  
Jaunaren Biotzan egonen gara.

Nere aldez otoiz-egizu  
Gure Jaunaren aurrean.

## SAMIÑA

Bizi naiz etxe onetan  
Eta alai da biotza  
Baina aldi batzuetan  
Nere biotza ilun da...

Lorailaren goizetan  
Zeru-eguzkia  
Mendigainetik dator  
Gutziz garbia,

Eta lurra agertzen da  
Argi ta lorez jantzia.  
Arratsaldetan

Menditartera eguzkia doa  
Ta gelditu da ilunpetan  
Biotz gaixoa.





Orduan, nik uste dut  
Bakarrik naizela...  
Baina ori ezta egia  
Nerekin zaude, Maria  
Amatxo ona bezala

Nere samiñak ikuszu  
Ama maitea-

“ZURE MAITASUNA BEAR DU  
NERE BIOTZA GAZTEAK.

1943 Lorailean

#### ANAITASUNA

Arantzazutik ANAITASUNA  
Nigana dator itz bat ekartzen;  
Arrats biotzan itz oiek jartzeni  
Izar ederra; maitetasuna.

Ta gure artean —bai euskalduna—  
Anai-maitasun bear aundia;  
Sukarrak jota dabiltz erriak

Ur otz eskeak. Eman bear diegu—  
Noiz arteraño gorde nai degu  
Aita Frantziskoren itz eztiá?

1943 urtea

## TXORI

Beti bezala, nai du txoriak  
Aize beroa ta eguzki garbia

Eldu denean  
Negu gorria  
Erbestera  
Doa txoria

Euskalerrriaren mendietan  
Erria dago ilunpetan  
Ta elur artean daude biotzak  
Euskal mendietan gorri denontzat!

Gure euskara  
Txori gaixoa  
Ez du arkitzen  
Kafe beroa;  
Ta Euskalerritik  
Otzez dardarez  
Euskara doa...

Euskalerrriaren txoriak  
Izango dute bero ta argia  
Ego-errien landetan.

Euskara ordea, txori gaixoa  
Otzez dardaraz iltzen doa  
Desusuzaren eskuetan-

Iruñan, 1943 urtean.



## PAKEREN ANDREA

Gizonen  
 Ama  
 Ludiko Andrea:  
 Eskerrik aunitz  
 Ematen dizut  
 Eldu delako goiko pakea.

Zure il onetan etorri da ta  
 Ekarri duzu, ama maitea.

Zure eskergatik,  
 Esai giñenak anaiak gera..

Eta  
 Orregatik  
 Ludi guziaren gizon artean  
 Da beindikatu zure izena

Begira  
 Beti  
 Gure lurrari;  
 Eman zaiguzu beti pakea  
 Uso zuria, gizonen Ama,  
 Ludiko Andrea.

1945 Lorailan  
 Erbiti´tar Bakarne



## MARCELINO GARDE III - ERRONKARIN APEZ

1950 urtean gaude, uztailaren 25ean, Santiago egunean, Kargaztuluko (Carcastillo) parrokian eman du bere lendabiziko meza; Predikari, Jesús Malón, apezta eta Inozenzio Aierbe, Aralarko Erretorea atautxi eklesiastikoa. "EGIAK ASKATUKO ZAITUZTE" izan da Marzelinoren bizitzako elburua, San Juaneko Ebanjeliotik, (8.32) etik artutako esaera.

Iru zutabe auek izan ditu bizitzan:EGIA, JUSTIZIA, DUINTASUNA, irurak bere aitarengandik irakasiak: gezurra, zakurkeria, maltzurkeria gorrotatzen ditu. Bi aurpegi erakusteak, erdi egiak errateak, euskaldunen aurkako egokiten diren bereizkuntzak ikusteak nazkatzen ditu: Bitzi ekintzetan, ainbertze jendeen jokaera nolakoa den ikusita, eta "ez izan eta bai uste"esaerak dioen bezala, gorrotatzen ditu. Jakinduriz eta buruz iñor baino geiago izaki , eta ortxe goian egon zitekeena, ez du goresmenik izan nai, eta bitartean Nafarroako erri txiki eta baztertuenetan bete du bere lana.

Orduak eta egunak ematen ditu euskara ikasten, Intxaurrondo gramatikarekin. Aolkuak ematen ditu nola euskaldundu bear den, eta euskaldunei jakinarazi, zer ardura bear den izan euskaraz mintzatzeko eta ondorengoei irakasteko beraien izkuntza. Apeztegian dela, bertze lankide batzuekin saiatzen da aldizkari bat ateratzen "Igandea" izenarekin. Bainan, azkenean ez da lortu aldizkari ori Nafarroako elizetan zabaltzea. Bainan, seminarista auek lortu dute bertze aldizkari bat gazteleraz ateratzea "Aralar" izenarekin eta naiz gazteleraz izan, gutienez integrazaleagoa sumatzen da eta zabaldu da elizetan. Apeztegian saiatu da euskarazko klaseak jartzen ere. Bainan saiakera onetan ez du geigerik lortu, orain aipatzen dudan elkarrizketarekin konturatuko zarete ze egoeretan bizi da. Bein erran zion lankide batek-

-Zuri, euskarak kaltetu zaitu.

- Eta apezaren erantzun asarretsua , auxe izan da:-Zuri kaltetu zaitu zure amatxiren erronkariko euskarak?

-. Eta zuri miña eman al zizun palmatoriakin Euskal Mezan argitze arek?

Elkarrizketa onekin nabarmendu nai dut, zein den geinetan euskararen aurkako bitzi den orduko egoera.

Bertze pertsona batzuk , ziur aski, Marcelino baino anitzez "TONTAGOA" zirenak, aurkitu dute laguntzak unibertsitatean sartzeko. Bitartean, gure apezak joan bearra izan du urrutiko parroki batera, Castillonuevo errira: arek, grazia andiak dio; Bi gezur zituela izen orrek, ez zuen gaztelurik ez eta deus berririk ere-

Segidan konturatzen da bereizkuntzagatik apropos bidalia izan dela olako erri batera, baina ez da kokildu: lana egin du, batez ere gaztediekin. Ez dute denbora anitzez eduki erri orretan. Segidan, tokiz aldatzen dute. Urte gutxitan pasatua izan da koajutore





Uztarrotzera eta gero Gardera párrokoa. Aipagarria Erronkarin egin duen bileraz. Orduna erronkariar eskultoreak Ama Birjinari egin duen irudia omentzeko. Ala zion egun orretarako prestatu duen egitaraua.

“Erronkari, 1954ko ekainaren 20an.

Egitaraua:

Goizez: 10ak. Erronkariar bailerako Amabirjiñen irudieei ongi etorria udaletxean-

Goizez: 11,30ak. Meza De Angelis.

Azkenean: “Gaur abesten du gure aranak.

Arratsaldez: 13ak. Txistularien ekitaldia.

13.30ak. Angelus. Micrófono medios abestua.

16ak. Pilota partida.

17.30ak. Agurra- Amabirjiñari funzio Eukaristikoa.

On Marzelinok, erronkarieraz auxe idatzi zuen jai onendakoi buruz:

“ERRONKARIKO ZAZPI IRIEK –ELKARREKI ETA BOZKARIO ANDIZ –XELEBRATU ZEIN AMABERJIÑA SORTZEZ XAIA ZELAKO DOGMA-ERABAKIAREN EIN-URTEBURIA.

GARAGARZAROAREN 20 GARNA ZEN.

EGUN KARTAN, UZARROTZEKO USKALDUN AMANDERE BANEK USKARAZ  
ERRAITAN ZEIN ERA-BERRIZKO UDURIAREN

AINZINIAN:

AYEI, ORAIKO AMABERJINA MOITIA,

AYEI, “ERRONKARIAR ZEURIARENA”

OTOI, EGINZAZU GURE ALTIA,

OROI ETA GORE ILTIAREN ORENIAN!

KALAXET!

GUNIAN BEZALA, ZEURIARAINO IGAN DEILA GORE OTOI BERA KAU!

Erronkarin euskararen alde egindako lana, arrigarria da. Uztarrotzen mintzatzen ziren azkeneko euskaldunengandik bildu ditu euskararekiko zuten maitasuna. Bildu zuen léxiko materialak eta antolatu zuen uskara ikasteko talde bat. Saiatu zen “GAUZEN AINGURIEKI” eguberriko abestia kanta arazten elizan.



GUAZEN AINGURIEKI  
ARKANXALIEKI  
GAUR KANTATZERA  
GORE ERREGEAREN  
XINKO SEMEAREN  
ADORATZERA”.

“BADOATZ ARTZAIK  
ARINKI BELAIK  
LASTERREZ OINEZ  
XAKIN AL LIRONEZ  
EA SORTU ZENEZ  
JESUS BEHELENEN”





1954urteko ekainaren 13an, "Zaldiko Maldiko" karlisten "El Pensamin-to Navaarro" egunkariaren geigarrian argitaratu zuen bere lenengo olerkia erronkarieraz, "ERRONKARI TXORIÑO", erronkariko umetxoei eskeinia itz auekin "erronkariar euskaldun txikier bigotzetik:

"UNRATZIEN TARTETAN  
ABIA IZARTURIK  
TXORIA DUK KANTETAN,  
BEDATSIA SARTURIK.

ZER EGUN EPEL DUK, TXORI ÑOTXO,  
ZEURI DUNDUPEAN1  
MAGAL ZABALIK –GOISA DA GOSO-  
TXORI NABARRA XOAN XITAN.

GORE BEDATSIA LASTERKA DOA  
ETA UNROSTOIAN, BAI ZER ONKI1  
AY, TXORIÑO.

NEGU GORRIAN, ¿NORA YOA YI?  
ELTAN DENIAN EINZLARI XURIA,  
ESTE LURRETRA XOAITAN TXORIA.

RONKARI LERDOIETAN  
ARGIA, ULLUNIK...  
BIGOTZAK, ELURRETAN...  
KEBEN, ZER OTZ BETIK1

ETA USKARA, TXORI GAXOA  
ERRONKARI GUZIAREN TXORIAK  
EKUNEN TEI BERO TA ARGIA  
URRINKO BAZTERRETAN.

BAIA USKARA -ENE GAXOA-  
KAIN OTZAGATIK, ILTRA BAYOA  
DEUSEZAREN ESKIETAN.

EZ IL KAIN FITE, SART –ADI KAN,  
-ETXEÑO BADUK – BIGOTZ BATEAN

UZZARROTZEN, 1954



Jose de Agerren aolkoak jarraituz idazten du leen aipatu dudan egunkarian, olerkiak erronkariar euskalkian nola zen “Anaitasuna”, edo gazteleraz; “Azken erronkariar”, “Erronkari berpiztua”, “Onki xin gore apez moitia”, Baita bertze berri batzuk, kontatzen duenean nola il zen Matias Labari artzai euskalduna, aran orretan azkenetakoa.

“Il da osaba Matias, eta ura zen –sinbolikoki diot– azken erronkariar. Uskalduna. Sortua, orai laurogeitamar urte, .- idazki au 1953 urriaren 25ean “El Pensamiento Navarro” argitaratua izan zen-

Ikusten du, begiak arriturik, nola aldatzen den bere erria, nola iltzen den erri bat, “izkuntza aldatzerekin, anima aldatzea bezala”, ILTZE DA...

**Mendeetan zear  
Uztarrotzeko piñudietan  
Aizea bakarrik mugitzen zen...**

**Urte batzuetatik onuntz  
Zein ergelak izan giñen galtzen  
Mantalinak eta balonak**

**Zaarren uskera;  
Neskatheen galparrak ,  
Tuntuneroen dantzak,  
Eta “Lenagoko” oriekin...  
Gure erriaren anima!!**

“Ziur aski, Matiasek, au dena geldiaraztea naiko zuela. Intxaur ondoen itzelpen, edo eguzkitan, bere etxeko “Crus ” eskaileretan, antxe, errepidea bukatzen den tokian, mundutik datorren bidetik, gordetzen zuen mende-etako bitxia. Oorezko zaindaria. Bere makilak ez zituen ikeratzen gaztedia, farre egiten ziona hidrógeno bonbei. Aren begiek ez zuten ikusten, nola sartzen zizkieten kontrabandoz ainbat ideia. Antxe zegoen bera protesta-tzeko oraingo jendeek ez zekitelako egokitzen teknika berriak eta aitzinako oiturak, eta gaurkotasunean bizitzeko ez zuela falta egiten leenagokoetaz aztea Ura leiala izan zen bere “vascuenz” izkuntzari eta erronkariko jantziari. Ze dizdira ateratzen zuen begietatik, arendako irakurri nituenean eta erronkariar uskeran, Azkuek bildutako ipuinak.

Arriduriz erraten zuen, orain leen baino obeki bizi zitekeela, baina bere ari-mak dolumiña gordetzen zuen penak kentzen zizkion ainbertze gauzengatik. Bakarrik gelditzen ari zela, eta atzerritar bat zirudiela bere erri propioan sentitzen zen.





Au dena ez da bakarrik gertatzen -Kanpionen "Azkeneko tuntuneroa"ren ipuinan. Nik ikusi dut azkeneko erronkariarra negarrez "Tolarea"´ko intxaurpean. Izan zen azkeneko festetako arratsalde batetan , ainbertze "manbo" eta "Penjamo" tartean, "purrurtsalda" loturik gazteek dantzatzean ikusterakoan. Matiasi erran nion, nola egonen ziren erronkariar amonak, eta erantzun zidan,- "Ayey"- oiukatzen.- Gure biloba oriek deabruak ote!! Eta aren erantzuna -malko ixilak-

Matias ibilia zen, bitzian zear, oinez Erriberaldean: orai autobuses egin izan nai ditu orduko bideak. Pozik kontatzen zidan. Baina aurrerapen material orren orde ez zuen aintza emanen ez eta "galtzamont" bat ere.

"Señoritoz jantzita" joatearakoan Erronkaritarren izaera galtzen zuela uste zuen, Bere filosofia errikoian Ortegarengana urbiltzen zen: "ni, nerone eta nire zirkunstantziak . Osaba Matiasendako bere "ziriguellak" berebaitakoek ziren eta utzi ezin zirenak, ez bazituen zerorren izaera uzten.

Aren filosofian, bere ondokoek "sabaian", zokoratu zituztenean galtzak, mantalinak, gorpinoak, arakak, eta kobre dizdiratsuak galdu zuten nortasuna . Moda eta munduko, "Txaramileroak " eraman dituzte beraiekin erronkarienen anima.

Bitartean osaba Matiasek aski zuen norberatasuna bakarrik aurrera egiteko, bainan buruan sarturik zeukan modak eta progresoak jokaera gaisto bat pasatuko ziotela. Iltzerakoan erraten zidan, aztatu izanen balu bezala: "Begira, lenengo aldiz bitzitzan gaizkitzen naizela, eta zein garesti ateratzen ari zaizkidan:-"inyekzio oriek..." ustez medizinak tranpatzen zutela, ez bait zen oartzen bederatzi amarreko gainean zituela" il da: bi jakintsu eta euskaltzale gipuzkoar grabaketa egitera eldu bear zitzazkionean, orien artean Elosegi jauna, espeleologoa bera, bainan batez ere aran sorgindu onetaz maitemindurik zegoena).

Ziur aski magnetofonoak bilduko izando lituzkela Matiasen memoria bitxia, bainan Aren arriduria desegiten zen mende onen aurrean, eta ilzear dagoen euskalkiaz.- Aren azkeneko momentuetan -eta aitz buru onakin zegola gainera-, arima suspertu arazi nai izan nion, Artzai Onaren irudiakin -ura artzaia eta kristaua bizi guzian izana-erronkarieraz erran nion, eta alaxe joanen zen auxe errepikatuz zerurantz "Gora Jeina, zu artzai ona zera!!"

Bere izkuntza mintzatzen, araneko jantziak, zeruan ez da arrotz sentituko, antxe aintzinako erronkariarrak zain zituelako.

## ON MARTZELINON ESKAERA NAFARROAKO DIPUTAZIOARI 1953 URTEAN

“Osaba Matias Labari, ez da “azken erronkaria”

Bainan sobratzen dira eskuetako beatzak, falta direnak kontatzeko. Euskerologo jakintsuekin mintzatuz, Aren izkuntza misteriotsua mintzatzen dutenak!! Aria salbatuko ditu aren itzak, euskararen arri biziak, aintzinako monumentua, egoaldetik desegiten ari dena... esaera batek zioen bezala: Biar beranduegi izanen da!!

Bailarako Batzarrak ere zerbait egin bearco luke, galtzen ari diren balore kulturalak jasotzeko; Lerroizuko basoak eta Lutoako belardiak baino geiago balio dute. Garaia da, bailara edo aran ontako aberastasunak ondasun materialak baino geiago zaintzeko balio luketela. Gaiarrek amesten zituen gauza andiak bere lurralderako. Bailarako batzarrak egin lezazke. Erronkariko museoa lenbaitleen egin bear da. Antxe aldareturik egon bear lirateke bailera oni nortasun istorikoa eman dizkioten gauzak.

Antxe, Orduna eskultorearen aurpegi bizi batzuk emanen diote bitzitza jantzi errikoei.

Antxe sukaldeetako burní zizelatuak, eta bojen artzaien koista artistikoak. Etxeko eunetako egindako maindereak eta ardi multzoen “trukak”. Almadi txikiak eta etxeetako aurrekoaldeak zemento azpietan ilko direnak.

Antxe erronkarien bitzi guztia, gaurto egunetik asi eta orai agertu direnen dolmen arri andietan aintzinen sekretuak gordeturik gelditu direnak.



Antxe erakusten al genieke arrotzei, ezin bada egun garena, gutxienez giñena, konturatu daitezten, erri jakintsu bat garela, ausarta izendakoekin, eta begirunea dugula gure zainak ziren gauzekin.

Baina ori dena baino leen pensatu bearko litzateke adiskidetasun festa batekin astea, erronkarieraz jantzi ederrekin eta "ttun-ttun"naren soinuakin, au dena "azkeneko erronkarieraz" inguraturik. Gaur egun oraindik bizi irauten dutenak, aien aurretik joan den mundu batetan. desagertzearen dena baten lekuko direlako...Oraindik, gurekin ditugu, bainan iltzen direnean bear bada aien oroitza izanen dugu, edo...oroitzapenik ere ez.

Uztarrotze osoa igo da ilerrira, antxe dago zuriz piñudi tartean. Zerraldo gainera lurra botatzen duten aur oriek, konturatzen ote dira "azkeneko erronkariarra" ilobiratzen dutela?. "In paradiso deducant te angeli", "que los angeles te lleven al paraíso", zozo multzo bat egan datoz, ilak diren erronkarrien animak datoz, Matias' en animaren bila. Eta zerura daramate "ziriguellan", eta denak kantatzen Uztarrotzeko eguberri kanta "Guazen aingurueki..." "Vamos con los angeles..."

Eta naiz gu lurrean triste gelditu, zeruan "ttun-ttun"en arratsaldea zen.

Orain guti aditu diot Idoia Garmendia Estornes andreari nola aipatzen zuen Gardek jartzen zizkiola letrak bere abestiei erronkarieraz. Denok dakigu Estornetarrei lagundu ziela gramática egiten. Eta "Principe de Viana" geigarrian, 1966 martxoan, auxe idazten zuen. "nonta orai zaar utzulik, uskaraz ele-erran beari Anitx azetu dugu, baita guziareki, arinago egonen da miia mintzotako, seik eskiak egitako. Korrengatik kau moka-kola erkinen dela, eta Uruñan agertzen den paper berrian eskuairan deinek, parkatu bear eskunen dei.

Konadraiño xitan drenak erdibaratrak, galte egitan dei: egiazki uskaldun zareia. Eta ñardesta dugunian kala dela Xinkoaren graziaz, beste zomaitek muturretan egoitzan dei gorengatik galu dela kemenko uskara. Kori ezta egi guzia, eta egi zatizkatruk, gaistoagoa guzurra baino.

Aurra nintzalarik, etxen eta karrikan uskaraz oro; eskolan eta elizan deusere (Mastru jeinak zume bateki xotan zien uskaraz erabiltan zionari; eta eurak ere etzien erakutsi uskaraz otoi-egitura).

Gunian, tenpra gaixto Uskaratarako; beste gisa egun kuetan! Elizaren Biltzar Nausiak manatu du Meza uskaraz emoitako, beste mintzoz bikala. Eta anitx xakitan deinek, egin nai dei uskararen alte; onki ustian, Erronkaritarako, berant. Aitak erraitan ziona —migotza ospinez bustirik—egia egun: astoa il, garagarra uzturik.

(1966 martxoa)

## AGUR XUBEROA

Uskaldunok uskaraz elerran bear dugu.  
Zomaiten ezpainetan, apeza ¿non sortu?  
Neurk ere bere amaz eztu bear alketu:  
Ene iri moiti zutut, Kargaztulu.

Erriberan sorturuk, korrengatik naparra;  
baino zainetan daukat odol züberotarra.  
Kanko artzainek moite Bardeaaren belarra,  
ta kuek biotzen sartu Iparreko bearra.

Jinkoaren graziaz, aurra nintzekian,  
aitzinekoan deia nik entzun barnian.  
-“ikaszak gore Uskara, edazak ungurian,  
berareki mugarik ezta gure artian”.

Bortiarano elturuk, anitx aldiz, lañoa;  
Buria zutik, Orhy da gidari zintzoa:  
Konen bazterren txerka bide bearra doa;  
lanxarra xoan-eta, kor dugu Xuberoa!

Kantik ekusten dena, bai den ekusgarri!  
Oianean Larraiñe urzu zuri zuri;  
Santiaren budarra “Madelena”üduri .  
Xuberotik norbaitek: -“Semia, xin adi”.

Izagun eta bertan nik moite dut erria:  
Artzain, laborari ta, bai, bertsularia;  
batek erraitan deit Berterretx-en itia.  
Eztiki sartu zaigu Xuberoa moitia:

(Jauregiberry Andrearen eskietan, Uruña-rat  
Sitian, bere erri moitiaz elerraiteko).

1966 VI-en 4-an URUÑAn.\_

## ERRONKARI ZAZPIARAK BAT

1966 Martxo

Erronkariko zazpi errietako neska-mutillak ango soineko ederrez jantziak, denak bildu eta elkaturik, jai egun batean. Badakizue gazteok; elkartasunak indarra sortzen du.

(Erronkariko zazpi irier, biotz guziareki).

Zazpi iri

-mendi, saldo, lerdoi-

Erronkari.

Zarei anazi,

mintzoz, begitartez,

uskal azi.

Alkar betik!

Xinkoak egin ziona,

zeren autsi

Aurridiak zoon

-eskietarik artruk-

Karriketan.

Zeurietan

Zazpi urzo egalez

Saldo batan.

Txek bortian;

Ardia barreatruk

otsoak xan.

Eder andi

kainbat egin bear.

Erronkari!

Y!, goari-adi!

Zazpi anaxe zreila;

kortik asi.

Zomat argi;

Zazpirak al kar artio

Ez indarrik.

Orain, berrogeitabost urte geroago, On Martzelinon poesiak bidaliko ditugu Erronkariar aurrak ikasi dezaten.

Erbiti ta Arbilla´tar Bakarne